



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko apirilaren 3a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean aritu dadin, Nafarroan Unicefen “Umeen Hiri Lagunak” programa bultzatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte anitzeko hitzarmenen esparru egonkor bat taxutu eta abiaraz dezan, Nafarroarentzat eta bere garapen kulturalarentzat interes berezikotzat jotzen diren entitate eta jarduera kulturalak finantzatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan informazio automatikoko sistema bat, itzarote-zerrendan edo hitzorduaren zain dauden herritarrek zerrenda horretan beren egoera kontsultatzea ahalbidetuko duena; eta halaber, premiatzen da Nafarroako Parlamentuari igor diezaion aipatu zerrenden bilakaerari buruzko dokumentazio xehakaturia. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari itzul diezaion. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da profil elebiduna ezar dezan eremu euskalduneko eta eremu mistoko zenbait zerbitzutako lanpostuetan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, proposatzen da Nafarroako Parlamentuan oroigarri bat jar dadin Nafarroan zio politikoaren indarkeriaren eta poliziaren gehiegikeriaren ondorioz izandako biktimen omenez. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia Ugariei buruzko 20/2003 Foru Legea gara dezan. Mozioa erretiratzea (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko martxoaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legearen bidez, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen zenbait artikulua aldatu ziren. Besteak beste, 51. artikulua, ehiza-barrutien zaintzari buruzkoa.

Aldaketa horrek zalantzak sortu ditu Nafarroako ehiztarien artean; artikulua horren interpretazioari eta aplikazioaren ondorioei buruzko dudak adierazi dituzte ehiztariek.

Hartara, 51. artikulua testua egokitu beharra dago, halako moduan non argiago eta beharriaz hobeki doituz jasoko baita zein kasutan den beharrezkoa ehiza-zaintzako sistema bat edukitzea barrutietan.

Bestalde, bi akats detektatu dira ehizari buruzko araudiaren gaurkotze horretan.

20. artikuluko 2. idatz-zatiko e) letra ezabatzean kendu egin zen barrutiari behar adinako zaintza emateko ardura nork duen adierazten zuen puntua. Gabezia hori zuzendu beharra dago.

21. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra aldatzean, hutsegitez ezabatu zen ondoko betebeharrak hau: "epizootia izan litekeen gaitzen bat agertuz gero Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua jakinaren gainean jartzea, bai eta barrutietan pozoitzerik izan bada edo debekatutako tresnarik erabili bada". Betebeharrak hori mantendu beharra dago.

Artikulu bakarra. Honela aldatuko da Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea:

Bat. 20. artikulua 2. idatz-zatiari e) letra gehitzen zaio. Honela geldituko da:

"e) Zaintza-sistema bat ematea barrutiari, foru lege honen 51. artikuluan aurreikusitako jarduketak egiteko".

Bi. 21. artikulua 1. idatz-zatiko b) letra aldatzen da. Honela geldituko da:

"b) Aurreko artikuluko lehen idatz-zatiko a), b) eta e) letretan eta artikuluko bereko bigarren idatz-zatiko a), c) eta h) letretan xedatutakoa betetzea, aprobetxamenduaren adjudikazioan ezartzen diren arau eta baldintzen arabera".

Hiru. 51. artikulua aldatzen da. Honela geldituko da:

"51. artikulua. Zaintza.

Edonola ere, barrutiak ehiza-zaintzako sistema bat eduki beharko du ondokoak egiteko:

a) Populazioak maneiatzea, eta horren barruan sartuko dira askatzeak, birpopulatuak eta translokazioak. Edonola ere, ehiza espezieen birpopulatuak bat baimendu denean, eta espezie horiek ehizatzea debeku den denboran, eta barrutiak bestelako espezieak ehizatzeak aukera ematen duenean.

b) Oreinak zelatan ehizatzea.

c) Monteriak.

d) Populazioen urtealdi-kontrolak

e) Kudeaketa okerrarengatik edo pozoia eta amu pozoituak jartzeagatik edo lege indardunek debekatzen dituzten gai toxikoak erabiltzeagatik barrutia osorik edo zati batean itxi denean, administrazio- edo zigor-espeditente bat edo kautelazko neurri bat betetzeko. Kasu honetan ehizazaina

barrutian egonen da, bertan egiten den lehenengo ehiza-denboraldi efektiboa bukatu arte.

f) Salbuespeneko ehiza-baimenak betetzea, bai 39. artikuluan jasotako metodoak erabiltzeagatik, bai ohiko ehiza-denboralditik kanpo egiteagatik, basurdearen gaueko zelatak barne.

g) Erregelamenduz gara daitezkeen bestelakoak”

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean aritu dadin, Nafarroan Unicefen «Umeen Hiri Lagunak» programa bultzatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean aritu dadin, Nafarroan Unicefen «Umeen Hiri Lagunak» programa bultzatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean aritu dadin, Nafarroan «Umeen Hiri Lagunak» programa bultzatzeko, halako moduz non toki entitateak 2014rako harekin bat egiteko moduan egonen diren.

2. Unicefen ekimenaren xedeak bere egin ditzan, «Umeen Hiri Lagunak» programako jarduketan batzuk politika orokorrean eta sektorialean jaso ahal izateko edo Administrazioak sustatu ahal izateko".

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte anitzeko hitzarmenen esparru egonkor bat taxutu eta abiaraz dezan, Nafarroarentzat eta bere garapen kulturalarentzat interes berezikotzat jotzen diren entitate eta jarduera kulturalak finantzatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte anitzeko hitzarmenen esparru egonkor bat taxutu eta abiaraz dezan, Nafarroarentzat eta bere garapen kulturalarentzat interes berezikotzat jotzen diren entitate eta jarduera kulturalak finantzatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urte anitzeko hitzarmenen esparru egonkor bat taxutu eta abiaraz dezan, Nafarroarentzat eta bere garapen kulturalarentzat duten munta, errotzea, interes soziala edo barne nahiz kanpo proiektzioa direla-eta, interes berezikotzat jotzen diren entitate eta jarduera kulturalak finantzatzeko".

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan informazio automatikoko sistema bat, itxarote-zerrendan edo hitzorduaren zain dauden herritarrek zerrenda horretan beren egoera kontsultatzea ahalbidetuko duena; eta halaber, premiatzen da Nafarroako Parlamentuari igor diezaion aipatu zerrenden bilakaerari buruzko dokumentazio xehakaturia.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan informazio automatikoko sistema bat, itxarote-zerrendan edo hitzorduaren zain dauden herritarrek zerrenda horretan beren egoera kontsultatzea ahalbidetuko duena; eta halaber, premiatzen da Nafarroako Parlamentuari igor diezaion aipatu zerrenden bilakaerari buruzko dokumentazio xehakaturia." Erabakia heldu da Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2014ko otsailaren 21eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar dezan osasuneko itxarote-zerrende bidez buruzko informazio automatikoko sistema bat, ahalbidetuko duena kirurgiako itxarote-zerrendan edo kontsulta edo proba

diagnostiko baten zain dagoen edozein herritarrek ezagutu ahal izatea zein den bere egoera partikularra osasuneko hitzorduei dagokienez; zehazki, zer egunetan sartu zen itxarote-zerrenda bakoitzean eta batez besteko itxarote denbora zerrenda bakoitzerako, bai eta itxarote-zerrenda horretako gaixo-kopurua.

Itxarote-zerrendan dauden herritarrek informazio hori ezagutu ahal izanen dute internet bitartez edo telefonogune adimendun bati egindako telefono-dei baten bidez. Eskuragarri dagoen informazioa Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren edukari egokitu behar zaio.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzarrera igor dezan, ahal bezain azkar, aldizka eta nahitaez sei hilean behin, itxarote-zerrenden egoera eta bilakaerari buruzko txosten bat, Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen 9. artikulua ezarri bezala.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari itzul diezaion.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Marisa De Simón Caballero andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari itzul diezaion."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko urtarrilaren 31ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da profil elebiduna ezar dezan eremu euskalduneko eta eremu mistoko zenbait zerbitzutako lanpostuetan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa bai parlamentu taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da profil elebiduna ezar dezan eremu euskalduneko eta eremu mistoko zenbait zerbitzutako lanpostuetan”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko urtarrilaren 31ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, proposatzen da Nafarroako Parlamentuan oroigarri bat jar dadin Nafarroan zio politikoaren indarkeriaren eta poliziarren gehiegikeriaren ondorioz izandako biktimen omenez.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, proposatzen da Nafarroako Parlamentuan oroigarri bat jar dadin Nafarroan zio politikoaren indarkeriaren eta poliziarren gehiegikeriaren ondorioz izandako biktimen omenez”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko urtarrilaren 31ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia Ugariari buruzko 20/2003 Foru Legea gara dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 27an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Familia Ugariari buruzko

20/2003 Foru Legea gara zezan, eta 2014ko urtarrilaren 31ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

